

2017

Ko jardueren memoria



APDEMA

ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD
INTELLECTUAL DE ALAVA

ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO
ARABAKO ELKARTEA

www.apdema.org

Aurkibidea

01 Elkartea

- 3. Misioa
- 3. Ikuspegia
- 4. Balioak
- 5. Batzar Nagusia
- 5. Zuzendaritza Batzordea
- 5. Bazkide mugimendua
- 6. Ekonomia
- 7. 2017. urtea zenbakitan
- 8. 2017ko jarduera nagusiak

02 Zerbitzu asoziatiboak

- 9. Familiei laguntzeko zerbitzua
- 10. Prestakuntza eta dibulgazioa
- 10. Apdemaren batzordeak
- 12. Komunikazioa

03 Etxebizitza zerbitzuak

- 14. Baliabideak
- 14. Talde-etxeak
- 14. Egonaldi laburrak
- 15. AVI programa
- 15. Atsedeen programa

04 Aisia eta Gizarte parte-hartze zerbitzuak

- 18. Aisia zentroak eta programak
- 18. Oporraldi programa
- 18. Bidaia programa
- 19. Kirol programa
- 19. Boluntarioak
- 19. Autokudeatzaileen programa
- 19. Irakurketa errazeko klubak

05 Arreta goiztiarreko zerbitzua

- 22. Arreta zuzena
- 23. Familiarentzako laguntza
- 23. Koordinazioa, aholkularitza eta prestakuntza

Aurkezpena

Dakizuen bezala, presidente aukeratu ninduten 2017ko urriko Batzar Nagusian. Orduan ez zenez posible izan, gure Jarduera Memoriaren edizio berriak eskaintzen didan aukera baliatu nahi dut APDEMAko familia handia osatzen duten bazkide guztiei nire agurrik beroena bidaltzeko. Inolako interesik gabe karguan nire aurretik egon diren pertsona guztiei zein zuzendaritza batzordeetako kide izan direnei. Zuzendariei, administrariei eta Elkarteko langileei, oro har, eguneroko lanarekin Elkartek funtziona dezan eta, ondorioz, jarduera eremu desberdinetan markatzen ditugun helburuak bete daitezzen lortzen dutelako. Gure kolaboratzaile eta autokudeatzaile estimatuei, euren parte-hartzea ezinbestekoa baita gure zerbitzuen erabiltzaileekiko konpromisoak ziurtatzeko.

Arabako Foru Aldundi txit gorenari eta horren mendeko organo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, beren ekarpen ekonomikorik gabe ezingo baikenuke gure proiektu bakar bat ere bete.

Erakunde publiko zein pribatuei, ematen dizkiguten laguntzei esker ezohiko gastu batzuk, ez asko, ordaintzeko modua ematen digutelako.

Gure kezkek partekatzen dituzten elkarte eta fundazioei.

Eta gure gizarte lanarekin aurrera jarraitzeko euren hondarra jartzen duten guztiei eta, segur aski, aipatu ez ditudanei.

Esan beharrik ez dago zure zerbitzura nagoela helarazi nahi dizkiguzuen eskaerei erantzuteko, eta etorkizunean elkar aurrez aurre ezagutzeko aukera edukitzea espero dut.

Adeitasunez, jaso ezazue agur bero bat.

Juan María Rodríguez Ortiz de Zarate jauna
APDEMAko presidentea

Zuzendaritza batzordea

Presidentea:

Juan María Rodríguez Ortiz de Zarate jauna

Presidenteordea:

Begoña Ortiz de Zarate Ortiz de Pinedo andrea

Idazkaria:

María Cristina Leal García andrea

Diruzaina:

Carlos Errasti Murguiondo jauna

Kideak:

Sara Moraza Argote andrea

Dolores Yrazu Mendizabal andrea

José Zurita Laguna jauna

María Carmen Loreto Carranza Hernaez andrea

Alain Callejo Matia jauna

M. Victoria García Cordero andrea

Eduarne Abasolo Ibarrola andrea

Luis M^a Fernández Ortíz de Murua jauna

Aitor Olabe Beobide jauna

Organigrama

Batzar Nagusia

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza

Administrazioa Idazkaritza

Batzordeak Okupazioak - Enplegua - Erabiltzaileak

Etxebizitzak

Talde etxeak

Batzarrak

Mariturri

Oion

Laudio

Zapardiel

Saracibar

Foronda

Urbasa

Easo

Amurrio

Losas

Programak

AVI

Atsedeen programa

Asoziatiboak

Familia arreta

Harrera

Jarraipena

Artatu gabeak

Programak

Prestakuntza

Komunikazioa

Eskola arloko jarraipena

Etorkizunerako prestakuntza

Aisia eta Gizarte parte-hartzea

Zentroak

Gasteiz

Amurrio

Laudio

Arabar Errioxa

Programak

Bidaiak eta oporrak

Kirola

Zahartzea

Jarduera komunitarioetan sartzea

Boluntarioak

Autokudeatzaileak

Arreta goiztiarra

Esku-hartzea

Estimulazio orokorra

Fisioterapia

Familientzako laguntza

Programak

Eskola garaiko trantsizioa

Elkartea

Adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko egiten du lan gure elkarteak, euren autodeterminazioa eta gizarteratzea da gure helburua.

Gure balioetako batzuk justizia, kalitatea, unibertsaltasuna eta parte-hartzea dira. Bazkideen Batzar Nagusia da gure erabaki organo gorena. Urtero, gure proiektuak, zerbitzuak eta Elkartearen kontuak onartzeko elkartzen gara bazkideak. Zuzendaritza Batzordea, berriz, eguneroko lanaz arduratzen da, eta ezintasuna duten pertsonen gurasoek, bazkide direnek, osatzen dute.

APDEMAko bazkideak bi motakoak dira: numerarioak eta kolaboratzaileak. Bazkide numerarioak ezintasuna duten pertsonen familiak dira. 2017an, 796 izan dira. Bazkide kolaboratzaileak, aldiz, APDEMAri laguntzen dioten pertsonak dira. 2017an, 496 izan dira.

Irabazi asmorik gabeko Arabako elkarte bat da APDEMA, erabilera publikokoa; 1500 familiak baino gehiagok osatzen dugu, eta adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea dugu helburu.

Pertsonak eta pertsonentzat sortutako elkarteak da gurea. Adimen ezintasuna duten pertsonak, euren sende eta tutoreek, boluntarioek, laguntzaileek, profesionalek. Elkarbizitzak gure desberdintasunak hobeto ezagutzen laguntzen digu.

Gure ahaleginak familiei laguntzera, zerbitzuen kalitatera eta gizartea mentalizatzeraz bideratzen ditugu. 1962. urtean sortu zen elkarte eta, harrezkeroztik, adimen ezintasunaren erreferente bihurtu da APDEMA, Araban eta Estatu osoan. Bi urte geroago, 1964an, Subnormalen aldeko Elkartearen Espainiako Federazioa (FEAPS) sortzen parte hartu genuen, bazkide gisa, Inklusio Erabatekoa gaur egun. Gure ibilbidean jaso ditugun sarien artean, 1971n, erabilera publikoko izendatu zuten elkarte. Eta 1991n Eusko Jaurlaritzaren SUSTATU Saria jaso genuen, Euskadiko Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko erakunde gisa. Horrekin batera, Arabako Foru Aldundiak **Arabako Domina** eman zigun 1994an, APDEMAk hasiera-hasieratik adimen ezintasuna duten probintziako pertsonen alde egiten duen **lan humano eta sozialagatik.**

Misioa

Adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea.

Ikuspegia

Guk nahi dugun etorkizuna ingurune osasungarri, irisgarri eta bateragarriak eraikitzean datza, **autodeterminaziotik eta adimen ezintasuna duten pertsonak barne hartuta.**

Elkartea buru da ezintasunen bat duten Arabako pertsonen beharretarako konponbideetan, ondorengo hauekin:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Misto batekin: gestio pribatu kontzertatukoa eta plangintza publikoaren mendekoa. Elkartek zerbitzuak erabili eta ematen ditu aldi berean.
- Gizarte ordezkari handi eta zabal batekin.
- Jarduera-irizpide berritzaileak erabilia, baliaezintasunari dagokionez.
- Familien lidergo soziala eta elkarten parte-hartze demokratikoa sustatuta.
- Bizi kalitatearekin konprometitutako elkarte kualifikatu gisa, gaitasun teknikoa eta kalitatea legitimazio-iturrien osagarri direlako, ezintasuna duten pertsonen eta horien familien beharrei konponbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako.

Balioak

Elkartek bere egin ditu munduaren ikuspegi partekatuarekin, ezintasun intelektuala duten pertsonen eta horien familienekin, eta horiek euren inguruarekin duten erlazioarekin bat datozen balioak.

Ondorengo hauek, alegia:

Elkartasuna	Eraginkortasuna
Justizia	Independentzia
Kalitatea	Kooperazioa
Gardentasuna	Kide izateko sentimendua
Inguruarekiko elkar harremana	Parte-hartzea
Bezerearekiko orientazioa	
Kualifikazioa eta berrikuntza	

Batzar nagusia

2017ko urriaren 19an izan zen elkartearen Ohiko Batzar Nagusia, eta boto eskubidea zuten elkarteko berrogeita hamar pertsona bildu ziren bertara. Ez zen beste bazkideen boto-ordezkatzerik izan.

Bi ordu iraun zituen ia batzarrak, eta gure kolektiboarentzat interesgarriak diren hainbat gai jorratu ziren, hala nola 2016ko ekitaldiko jardueren eta urteko kontuen memoria, edo Zuzendaritza Batzordearen berritze partziala, bai eta proiektuak zein 2017ko aurrekontu ekonomikoa ere.

Aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onartu ondoren, elkarteko zuzendari-gerente den Nacho Lozak 2016ko jardueren memoria aurkeztu zien batzarrera bildutakoiei.

Ondoren, Zuzendaritza Batzordeko idazkari Judith Arrónizek APDEMAko bazkide numerario eta kolaboratzaileen mugimendua azaldu zuen. 2016. urtean, 796 izan ziren bazkide numerarioak. Gure bazkide kolaboratzaileen artean izandako 19 bajen ondorioz, 496 izan ziren gure elkartetik kanpoko kolaboratzaileak. 2016ko kontuak jorratu ziren, ondoren, Batzarrean. Elkarteko diruzain Carlos Errastik diru-sarrera eta gastuen partida nagusiak azaldu zituen, balantzearekin eta emaitza-kontuarekin eta zegozkien saldoekin batera. Hala, 10.323,83 euroko defizita izan zuen ekitaldiak. Bere azalpenean, bazkideei jakinarazi zien elkartek zerbitzu komun eta asoziatiboengatik jasotzen duen diru-laguntza izoztuta dagoela hainbat urtean. Eta Batzarrari gogorarazi zion galera horrek eragin zuzena duela elkartearen funtsetan, etorkizunari begira aztertu beharreko gaia dela eta 2014. urtean derrama bat egitera behartu zuela horrek.

Ondoren, Zuzendaritza Batzordearen berritze partzialaren gaiari ekin zitzaion, eta Nieves Montoya eta Judith Arróniz Zuzendaritza Batzordeko presidentek eta idazkariak, hurrenez hurren, euren karguak utzi izana azpimarratu behar da.

Batzarrak aho batez onartu zuen berritzea, eta Juan Rodríguez presidente, Begoña Ortíz de Zárate presidenteorde, eta Cristina Leal idazkari izendatu zituen. Horrekin batera, Carmen Carranza, Sara Moraza eta José Zurita Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zituen.

Eguneko hurrengo gai modura, Nieves Montoya presidenteak 2017ko ekitaldiko jarduera-proiektuak azaldu zituen: lau talde etxetan 24 orduko arreta ezarri izana, 0-6 urtekoetan arreta goiztiarra kontsolidatu izana edo familia batzordeen garapena azpimarratu behar dira. Berriz ere, Batzarrak aho batez onartu zituen aurkeztutako proiektuak.

Eguneko gai-zerrendako azken gaia 2017ko aurrekontu ekonomikoa izan zen. Diruzainak urte horretarako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena aurkeztu zuen, eta esan zuen aurrekontua aurreko urtekoa baino handiagoa zela, inkorporazio berriengatik, Etxebizitza Zerbitzuko arreta zuzeneko ordu-kopurua handitu izanagatik, eta Eusko Jaurlaritzak dekretuz Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan arreta goiztiarra sei urtera arte zabaldu izanagatik.



Kuotari dagokionez, Carlos Errastik azaldu zuen bazkideen kuoten diru-sarrerak Zerbitzu Komun eta Asoziatiboen Hitzarmenaren aurrekontuaren %15 baino gutxiago direla, eta hortik datorrela defizita. Hala, 2017 urterako kuota 70 eurotik 75 eurora igotzea proposatu zuen. Horri dagokionez, gogorazi zuen iguera horrek gehieneko desgrabazioa duela errenta aitortenean, %30ekoa, Foru Ogasunarentzat erakunde lehenetsia delako.


Batzar Nagusiak aho batez onartu zituen 2017rako aurrekontu ekonomikoa eta kuotak igotzeko proposamena.

Zuzendaritza batzordea

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren erabaki organo gorenak, Zuzendaritza Batzordearen esku uzten du gure elkarteko eguneroko gai nagusien kudeaketa. 2017ko ekitaldian, ohiko 11 bilera egin zituzten kideek. Batzorde Iraunkorrak, berriz, Zuzendaritza Batzordearen ordezkioak, 3 bilera egin zituen. Hauek izan dira sartu diren kide berriak: Sara Moraza, José Zurita eta Carmen Carranza.

Bazkide mugimendua

2017. urtearen hasieran, APDEMAk 796 bazkide numerario zituen. Urtean zehar 13 alta eta 49 baja izan dira, eta 2017ko abenduaren 31n, 760 bazkide numerario zituen.



Bazkide kolaboratzaileen kopurua, berriz, 474koa da, 22 pertsonak baja eman ondoren.

Ekonomia

2017. urtean, lau lankidetzta hitzarmen sinatu zituen APDEMAK Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin, Etxebizitza, Aisia eta Gizarte Parte-Hartzea, Arreta Goiztiarra eta Jarduera Asoziatiboan zerbitzuei zegozkienak, 5.279.566,39 eurokoak, guztira. ONCE Fundazioaren eta Vital Fundazioaren diru-laguntzak jaso genituen, 41.525 €, eta La Paloma kaleko bulego zentralen eraberritze-gastuak estali zituzten.

GOFEn behin betiko likidazioak Etxebizitza, Aisia eta Gizarte Parte-hartzea eta Arreta Goiztiarreko zerbitzuen gastuak estali zituen. Zerbitzu asoziatiboan zerbitzuen gastuekin ez da hala izan; urtez urte errepikatzen da egoera hori, eta 2017an, 15.436,41 euroko defizita eragin zuen.

Beste diru-sarrera batzuk ere izan ditu APDEMAK, bazkide numerarioen eta kolaboratzaileen kuotak, jarduera-kuotak eta erakunde publiko, pribatu eta gure EGEEKo programara atxikitako enpresen dohaintzak, besteak beste.

2018ko apirilean, 2017ko ekitaldiko kontuen auditoria egin du Betean enpresak.

2017ko diru-sarreraren eta gastuen laburpena. Behin-behineko datuak.

Gastuak

Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak

Arreta Goiztiarra	627.949,03
Etxebizitzak	4.258.882,80
Aisia	355.098,33

Zerbitzu komunak eta asoziatiboak

Proiektuak	41.525
Kanpoko zerbitzuak	44.987,14
Langileak	213.630,16
Programak eta Jarduerak	92.093,30
Hitzarmenetik kanpoko programak	96.529,51

Zerbitzu komunak eta asoziatiboan
guztizko gastuak
488.765,11

Gastuak guztira
5.730.695,27

Diru-sarrerak

Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak

Arreta Goiztiarra	627.949,03
Etxebizitzak	4.258.882,80
Aisia	355.098,33


Zerbitzu komunak eta asoziatiboak

Proiektuak	41.525
Sozialak	67.286,64
GOFEn hitzarmena eta diru-laguntzak	186.104,80
Programak eta Jarduerak	89.769,20
Hitzarmenetik kanpoko programak	88.643,06

Zerbitzu komunak eta asoziatiboan
guztizko diru-sarrerak
473.328,70


Diru-sarrerak guztira
5.715.258,86

2017. urtea zenbakitan



Erabiltzaileak

- Asoziatiboak **760**
- Etxebizitzak **163**
- Aisia **514**
- Arreta goiztiarra **343**



Profesionalak

- Asoziatiboak **7**
- Etxebizitzak **159**
- Aisia **10**
- Arreta goiztiarra **17**

Erabiltzaileak

Asoziatiboak	Etxebizitza zerbitzu orokorrak 163	Aisia 277	Autokudeatzaileak 72	Kirola 165	Arreta goiztiarra 343
Bazkide diren familiak 760	Etxeak 92	Gasteiz 201	Gasteiz 62	Gasteiz 153	
Familiekin elkarrizketak 204	AVI 44	Amurrio 26	Amurrio 10	Laudio 12	
	Atsedeen etxea 27	Laudio 27	Oporrak eta bidaiak 252		
		Arabar Errioxa 23	Oporrak 193		
			Bidaiak 59		

2017ko jarduera nagusiak

Forondako, Laudioko, Zapardielgo eta Mariturriko Talde Etxeetan 24 orduko arreta ezartzea.

Etxebizitza zerbitzuko pertsonen bizi-kalitatea neurtzea.

“Resiplus” tresna informatikoaren kontsolidatzea.

Erabateko Kalitateko Sistemako Konpromiso etapa egiaztatzea

Irisgarritasun kognitiboaren inguruko sentsibilizazio kanpaina: “Zurekin, errazago da dena”.

Arreta goiztiarra 6 urtera arte luzatzea eta areto berriak egokitzea.

Seme-alaba bat euren kargu edukitzeagatik familia prestazioa jasotzen duten familiei Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren bitartez osagarria erreklamatzeko laguntzea.

Bulegoen egoitza zentralaren berritzea.





Zerbitzu asoziatiboak

Familiak oso garrantzitsuak dira adimen ezintasuna dugun pertsonen bizitzan, gu zaindu eta babesteko. Baita gure autonomia eta bizi-kalitaterako ere. Zerbitzu asoziatiboek gure familiak babestea, informatzea, entzutea eta babestea dute helburu.

Prestakuntza eta gure errealitatea zabaltzea ere oso garrantzitsua da. Horregatik, DBHko ikasleentzako sensibilizazio programetan parte hartzen dugu, Gasteizko bezalakoetan, Mendebaldea Institutuko Kultur Astean, edo Osasun + programan, osasun arloko profesionalekin.

APDEMAren batzordeetan adimen ezintasuna duten pertsonentzat oso interesgarriak diren gaiak lantzen dira, enplegua eta okupazio zentroak, besteak beste. Erabiltzaileen Batzorde bat ere bada, eta, bertan, elkarrean duten funtzioa bultzatzen dute ezintasuna duten pertsonak.

Familia funtsezkoa da adimen edo garapen ezintasuna duten pertsonen ibilbide bitalean. Bai desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza eta zainketa nagusi gisa, bai eta euren autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko ere. Horregatik, **zerbitzu asoziatiboetako eremu desberdinetan garatzen diren jarduerak familientzako laguntza sustatzera bideratuta daude.**

Zerbitzu asoziatiboetako profesionalak gure erabiltzaileen familien informazio eta laguntza-beharrak asetzen dituzte. Eta, aldi berean, **Elkarrean ezagutza errealagoa edukitzean laguntzen diete.** Laburbilduz, **familiak babestea, familiei informazioa ematea, entzutea eta horien ondoan egotea** da euren funtzioa.

Familiei laguntzeko zerbitzua

Adimen ezintasuna duen pertsonaren familiaren dimentsioa du ardatz zerbitzu honek, elkarriketa pertsonalaren bidez batez ere, eta gai jakinetarako konponbideak aurkitzeko kudeaketak ere egiten ditu. Gehienetan, familiako kide batekin erlazionatzen gara, baina bi gurasoek eta beharrezkoa izanez gero anaia-arrebek ere parte har dezaten saiatzen gara. Banakako arretak ondorengo hau suposatzen du:

- Adimen ezintasunarekin lotutako gaien inguruko **informazioa, orientazioa** eta kudeaketa.
- Elkartera informazio edo aholku eske jo duten pertsonen hasierak **ongiitorria** ematea. 2017. urtean 13 bazkide berri sartu dira.
- **Prestazio ekonomikoak.** Urtero bezala, prestazio ekonomikoen liburuxka bat egin da, gida modukoa, adimen ezintasuna duten pertsonentzat.
- Erabiltzaileen eta horien familien inguruko **datuak jaso eta eguneratzea.** Bazkideen egoera pertsonal eta familiarrean izandako aldaketak, familiei arreta emateko eta talde etxeetan bizi diren pertsonen jarraipena egiteko eguneroko erregistroak, arreta zuzeneko profesionalen aldetik.

- Adimen ezintasuna duen pertsonak edo familiako kideren batek izandako **egoera espezifikoa esku hartzea**, bizi-kalitatearen hobekuntza, familia arteko gatazketak eta abar. Kasu horietan, banakako elkarrizketak edo elkarrizketa familiarren bidez esku hartzen da, bitartekaritza lana egiteko.
- **Harremana izan dugu** erakunde baliabideetan artatu gabeko pertsona batzuekin, eta harremanetan jarri gara eurekin, beren egoera pertsonalari buruz jakiteko.



Prestakuntza eta dibulgazioa

Prestakuntzarekin eta dibulgazioarekin lotutako jarduerak ondorengo hiru arlo hauetan banatu dira:

- Hezkuntza arloko dibulgazioa

Udalaren GASTEIZTXO programaren bitartez, APDEMA eta horren funtzionamendua ezagutzera ematen dira, eta sentsibilizazioa eta bisibilitatea sortzen dira gizartean. 2017an, elkarrizketak eskaini zaizkie DBHko hamabi talderi. Hauek izan dira parte hartu duten ikastetxeak: Marianistas, Ekialde, San Viator, Ikasbidea, Samaniego eta Los Herran.

- Mendebaldea Institutuko Kultur Asteko parte-hartzea.

Mendebaldea Institutuko Kultur Astearen barruan egiten da jarduera, Irakurketa Errazaren inguruan sentsibilizatzeko eta horri buruzko informazioa emateko. 2017ko apirilaren 11n egin zen, Mendebaldea Institutuko DBHko 1. mailako 2 ikasgelatan, 60 ikaslerekin, alegia, 22 mutil eta 38 neskekin.

Erabiltzen den metodologia txostengileen aurkezpen batean, APDEMAren aurkezpen labur batean eta Irakurketa Errazaren aurkezpen eta azalpen batean datza. Azkenik, Irakurketa Errazaren praktika egin zen, 'Ana Frank: bere bizitza' lanarekin.

- Osasun arloko dibulgazioa

Osasun + programaren bidez, adimen ezintasuna duten pertsonak protagonista dituzten sentsibilizazio saioak egiten dira osasun zentroetan, eta osasun kontsultetan eta osasunaren zainketan dituzten kezkak, zalantzak, beharrak eta zailtasunak partekatzen dituzte osasun arloko langileekin. Saio horien helburua da adimen ezintasuna duten pertsonak ulertzeko eta euren artean komunikatzeko estrategiak eskaintzea, horrek euren osasunean eragiten baitu, noski.

2017. urtean, saio bat egin da Oiongo osasun zentroan, eta beste bat Audiokoan.

Apdemaren batzordeak

- Enplegu Batzordea.

APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko langile diren lau pertsonak, APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko langile diren pertsonen lau senidek eta Elkarteko bi profesionalak osatzen dute Enplegu Batzordea. Batzordearen helburua da INDESA gertatzen denaren jakinarekin gainean egotea eta langileak nola dauden jakitea. Aurten, programatutako sei bilerak egin dira.

- Okupazio Zentroetako Batzordea.

Adimen ezintasuna duten pertsonentzako GOFeren okupazio zentroetara joaten diren APDEMAren erabiltzaile diren pertsonen zazpi amak edo senideek osatzen dute Okupazio Zentroetako Batzordea. Horren helburua da zentro horietan gertatzen denaren jakinaren ginean egotea. Okupazio Zentroetako Batzordeak hiru ohiko bilera eta ezohiko bilera bat -Desgaitasun Arloko zuzendariorde teknikoarekin- egin ditu.

- Erabiltzaileen Batzordea (Mundua eraikitzen dugu)

FEVAS Plena Inclusión Euskadiren “Mundua eraikitzen dugu” proiektuan sartuta dago, eta adimen ezintasuna duten pertsonen elkarrekin protagonismo handiagoa ematea du helburu. Aurten sei bilera egin ditugu, horietako bat APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariarekin, Batzordearen kezkak azaltzeko eta zer jarduera-ildori jarraitu jakiteko.

- FEVAS Plena Inclusión Euskadiko batzordeak

APDEMAko zerbitzu asoziatiboetako kideak lau bilera espezifikotara joan gara: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin izandako bilera batera; Euskadiko elkarteekin egindako beste batera, seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko prestazioak eta DSBEn bidezko osagarriaren inguruko arazoak lantzeko; Eusko Jaurlaritzarekin egindako beste batera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aldatzeko proposamenaren inguruko gure ekarpenak egiteko. FEVAS Plena Inclusión Euskadiko Familia Batzordearekin ere egin dugu bilera bat.

- Hezkuntzaren jarraipena

Hezkuntza zentroekin eta Berritzeguneko gizarte langileekin harremanetan egonda, familiek eskatuz gero.

- Etorkizunerako prestakuntza

Familiek oso positiboki baloratzen dute Elkartearen zerbitzu hau; bertan, hainbat gairi buruzko informazioa eskaintzen da, testamentuari, tutoreak etorkizuneko edukiko duen funtzioari, bizileku-aukerari, tutore aldatetari eta abarri buruzkoa, besteak beste.

- Erabateko Kalitatearen Ebaluazio Sistema

2014. urteaz geroztik, Erabateko Kalitateerako Plana garatzen du APDEMAk, arretaren eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Zuzendaritza eta teknikari taldeetan ordezkariak duten pertsonen, arreta zuzeneko profesionalen, senideen eta erabiltzaileen osatutako 13 laguneko autoebaluazio talde batek egiten du.

Autoebaluazioaren ondoren eta Hobekuntza Plana aurkeztuta, Konpromiso etapa egiaztatuta dugu. Egin beharreko hobekuntzen artean familien asebetetzearen ebaluazioa, kolektiboaren ahalduntzea eta bisualizazioa, familia-taldeen balizko eraketa azpimarratu behar dira.

- Bestelakoak

2017an, beste zerbitzu batzuk ere eman ditugu: seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko familia prestazioa jasotzen duten familiei laguntza, Lanbideko DSBEn bidez osagarria kendu dielako, legezko tutoreei kontuak kitatzen lagundu diegu, Gasteizko Udalak antolatutako Bizikidetzeta eta Aniztasun Elkarguneari parte hartu dugu.

Horrekin batera, arreta goiztiarreko, etxebizitza, eta aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak koordinatu ditugu eta horiekin esku hartu dugu.



Komunikazioa



APDEMAren ahotsa da zerbitzua. Tresna garrantzitsua, adimen ezintasuna duten pertsonen eta euren familiek iritzi publikoan leku bat eduki dezaten. Gure komunikazio ekintzen artean, hiruhileko 'Ecos' buletina azpimarratu behar dugu. Horren bertsio digitalean, adimen ezintasuna duten pertsonen, euren senideek, teknikariek, boluntarioek eta abarrek elkartearan egunerokoa islatzen dugu. Hiru hilean behin, inprimatutako bertsioa argitaratzen da, gure eguneroko gai garrantzitsuenekin.

Gainera Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta, dibulgazio kanpaina bat egin dugu, "Zurekin, errazagoa da dena" lelopean, irisgarritasun kognitibo kontzeptua eta eskubide hori aplikatzeak gizartean eta bereziki adimen ezintasuna duten pertsonen artean dituen onurak ezagutzera emateko.

Zerbitzu asoziatiboaren egitura

Kultur Astea. Mendebaldea Institutua

Irakurketa Errazari buruzko informazioa eta praktika

2 ikasgela. DBHko 1go maila

Gasteiztxo

APDEMAri buruzko informazioa

DBHko ikasleen 7 talde

Osasun +

Sentsibilizazio saioak

Laudioko Osasun Zentroa

Oiongo Osasun Zentroa

Dibulgazioa

Batzordeak

FEVAS

Familia Batzordea

GSU Familia

Inklusio Erabatekoa

5 bilera

3 aurrez aurre

2 online

Apdema

Erabiltzaileak

5 bilera

Enplegua

6 bilera

Okupazio zentroak

Ohiko 3 bilera

Ezohiko bilera bat

U3

Etxebizitza zerbitzuak

APDEMAren etxebizitza zerbitzuak etxebizitza bat eskaintzen die adimen ezintasuna duten pertsoneri, euren kabuz etxerik aurkitu ezin dutenei. Gainera, laguntzak eskaintzen dituzte, autonomiarik ahalik eta handienarekin bizi daitezen eta komunitatean parte har dezaten.

APDEMAk taldeentzako 11 etxe kudeatzen ditu, gehienez ere hamar lagun har ditzaketenak. Zehazki, 7 Gasteizen daude, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrion.

Egonaldi laburrak ere eskaintzen dira, senideen edo erabiltzaileen beraien behar puntualei erantzuteko.

Euren kabuz, familiaren edo erakundeen laguntzarik gabe, bizi diren pertsonentzako Bizimodu Independentearen Aldeko AVI programa.

Asteburuetan eta oporretan, Atsedeen programa, eskola-adinean dauden eta jokabide, arazoak, arazo sentzorialak, motrizitatearen ingurukoak eta abar dituzten haurren familiei laguntzeko.

APDEMAk, bere etxebizitza zerbitzuaren barruan, hainbat etxebizitza eta programa eskaintzen ditu,

etxebizitza baten beharra edukita, etxebizitza euren kabuz aurkitu ezin duten adimen ezintasuneko pertsonentzat etxe bat sortzeko helburuarekin.

Helburua da adimen ezintasuna duten pertsonen baliabide eguneratuak, normalizatuak eta inklusiboak eduki ditzaten lortzea, etxe arruntetan bizitza, laguntza edukita, euren autonomiari eta egokitzapenari eutsita edo horiek handituta, eta, gainera, eguneroko bizitzak eta bizitza komunitarioak eskaintzen dituzten jarduera eta aukeretan gehiago parte har dezaten lortuta.

Etxebizitza zerbitzuak taldeentzako 11 etxe eta bi programa ditu: asteburu eta oporretarako Atsedeen programa eta AVI programa (Bizimodu Independentearen aldekoa).

Estalduari dagokionez, Arabako Lurralde Historikora mugatuta dago. Etxebizitza kopuru handiena Gasteizen dago, 7 etxebizitza, hain zuzen ere; Arabar Errioxan bi etxebizitza ditu, Oionen; eta Aiaraldean beste bi, Laudion eta Amurrion. Atsedeen programa Gasteizen bakarrik egiten da, baina Araba osoko familiak hartzen ditu; AVI programak, berriz, Gasteiz, Oion (Arabar Errioxa) eta Aiaraldea (Laudio) hartzen ditu.

APDEMAk zuzenean garatzen eta kudeatzen du Etxebizitza Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailarekin sinatutako Lankidetzak Hitzarmenaren bitartez.




Baliabideak

Talde etxeak

Gehienez ere 10 erabiltzaile hartzen dituzte etxe hauek. Etxebizitzak iraunkorrak dira, hau da, babes osoa eskaintzen dute urte osoan. Bertan, banakako laguntza programak eskaintzen dira eta, kasu batzuetan, hezkuntza, lan edo aisia motako beste zerbitzu batzuekin konbinatutako programak.

Talde etxeak 11 dira, eta honela banatua daude: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian.




Egonaldi laburrak

Talde etxeetako aldi baterako egonaldiak dira, **senideek edo pertsonak beraiek une jakin batean eduki ditzaketen behar partikular edo egora puntaletarako.**

Ondorengo taulan, programako egonaldiak, pertsonak eta arreta egunak ageri dira:

Etxea	Egonaldiak	Pertsonak	Egunak
Urbasa	16	9	192
Easo	2	2	102
Foronda	1	1	63
Zapardiel	4	4	183
Amurrio	2	2	45
Laudio	7	4	134
Guztira	32	22	719



AVI programa (Bizimodu Independentearen aldekoa)

Adimen ezintasuna edukita, modu independentean bizitzea erabakitzen duten edo erabaki duten eta gauza batzuetan euren kabuz konpon ezin ditzaketen beharrak edo gabeziak dituztenen pertsoneri laguntza, orientazioa eta babesa eskaintzean datza programa.

Adimen ezintasuna duten eta euren etxean, pentsioetan, gizarte sareetatik kanpoko egoitzetan eta abar bakarrik bizi diren pertsoneri kasu egiten zaie batez ere, etxean erakundeen edo familiaren laguntzarik ez dutenei.

Jardun eremua probintzia da (Gasteiz, Laudio eta Oion). Helburua da adimen ezintasuna duten pertsoneri euren etxean bizitzea eta euren komunitate zein auzoko parte izaten laguntzea.



Atsedeen programa

Familiei laguntzeko programa bat da. Eskola adinean dauden haurren senideei asteburuan eta oporretan atsedeen ematea da helburua.

Urteko asteburu guztietan funtzionatzen du programak, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldia, eskaintzen zaie familiei oporretan (Aste Santuan, San Prudentzio jaietan edo udan). Aisia programa da batez ere.

Atsedeen etxea Gasteizen dago.



Zerbitzuaren egitura

Talde etxeak

Batzarrak	Foronda
Marriturri	Urbasa
Oion	Easo
Laudio	Amurrio
Zapardiel	Losas
Saracibar	

Programak

AVI

Atsedeen

Talde etxeak



Pertsonak: **95**

Profesionalak: **71**

Egonaldi laburrak



Pertsonak: **22**
(32 egonaldi labor)

Profesionalak: **8**

AVI programa



Pertsonak: **44**

Profesionalak: **9**

Atsedeen programa



Pertsonak: **27**

Profesionalak: **5**

Etxebizitzak: Jarduera Plana 2017-2018

2017an egina

Gizarte zerbitzuen erregistroak hobetzeko tresna informatikoaren kontsolidazioa.

Artatutako pertsonen bizi-kalitatearen neurketa.

Urteko laborpen bitalen eguneratzea eta egitea.



2018an egin beharrekoa

Artatutako pertsonen banakako laguntza-planak.

Tratu txarrak prebenitzeko plana abian jarri.

Etxeetan irisgarritasun kognitiboko tresnak ezarri.

Zahartzea ardatz duen ikuspegia.

4

Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak

Aisia eta Gizarte Parte-hartze Zerbitzuan adimen ezintasuna duten pertsonentzako aisia erraza eta onuragarria sustatzen dugu, eta euren inguruko kultur, gizarte, kirol eta jolas eskaintzaz gozaten laguntzen diegu.

Aisia zentroetan eta programetan, asteburuetan ongi pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira. Mota guztietako animazio tailerrak ere badaude.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira itsasertzeko lekuetara edo hirietara, bisita kulturalak egiteko.

Kirola da aisiako beste jarduera atseginetako bat. Gure erabiltzaile askok kirola egiten dute.

Aisia eta gizarte parte-hartzeko beste aukera batzuk talde autokudeatzaileak eta irakurketa errazterako klubak dira.

Jarduera horiek guztiak zerbitzuko 84 boluntarioen laguntzarekin egiten ditugu.

Zerbitzu honen bitartez, adimen ezintasuna duten pertsonentzako jarduera ludikoak, jolasak eta kirolak eskaintzen dira, Arabako lurralde osoan.

Aukerak aisiarako zentro eta programen artean banatzen dira: Gasteiz, Amurrio, Audio eta Arabar Errioxa, eta ondorengo programa hauek: kirola, udako oporrak eta bidaiak, zahartzea, irakurketa errazterako klubak, boluntarioak eta autokudeatzaileak.

Zerbitzu honen kudeaketari dagokionez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen diru-laguntza du, horrekin sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren bitartez.

Autodeterminazioa, inklusioa eta bizi-kalitatea dira jarduera-irizpideak, eta inguru osasungarri, irisgarri eta bateragarriak bilatzen ditugu, adimen ezintasuna duten Arabako pertsonen aisia beharrak aintzat hartuta.



Aisia zentroak eta programak

Topaketarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak zein talde harremanak sustatzeko lekuek dira.

Eskaintzak bi gune bereizi ditu: asteburuak, jarduera-agenda espezifikoeekin, eta astelehenetik ostiralerako animazio soziokulturaleko tailerrak.

2017an, Gasteizko zentroak 7 tailer egin ditu, eta 12 pertsonak hartu dute parte, batez beste, tailer bakoitzean. Asteburuetan, hauek izan dira euren agendak autokudeatu dituzten talde-kuadrillak: 2 gazte-talde, helduen 2 talde eta adin jakinik gabeko talde bat. Urte osoari dagokionez, 201 bazkidek, 24 boluntariok eta 5 teknikarik parte hartu dute.

Laudioko zentroak eta Amurrioko Gazte Alaiak zentroak asteburuan izaten dituzte jarduerak, eta batez besteko asistentzia %60 eta %70eko izaten da, hurrenez hurren. Laudion, 27 bazkidek, 12 boluntariok eta teknikari batek parte hartu dute. Eta Amurrion, berriz, 26 bazkidek, 35 boluntariok eta teknikari batek. Arabar Errioxako programak jarduera puntualak egiten ditu, asteburuetan gehien bat. 23 bazkidek, 6 boluntariok eta teknikari batek parte hartu dute.



Oporraldi programa

Uztailean eta abuztuan, egonaldi eta zirkuitu programa egiten da. 2017ko Oporraldi programako 18 jarduera edota txandetan 193 erabiltzailek eta 47 begiralek parte hartu dute.

Aukeratutako lekuak Orio, Lekeitio, Zarautz, Hondarribia, Noja, Isla, Candas, Lloret de Mar eta Tenerifeko uhartea izan dira. Gaztela-Mantxa bertako kultura, paisaiak eta gastronomia ezagutzeko aukeratu zen.

IMERSO-PLENA INCLUSION programan 3 txanda egin dira abuztuan, eta 30 erabiltzailek parte hartu dute.

Udal udalekuetan, eta probintzia mailako udaleku eta gazte bidaietan adimen ezintasuna duten haurren parte-hartzea babestuz ere kolaboratu da.

Bidaia programa

Azken urteetan, atsedean hartzeko eta gozatzeko baliatzen da Pazko Astea. Apirilaren 17tik 23rako astea horretarako baliatu zen.

Helmugak Salamanca kulturala, Gandia, Noja eta Suances izan ziren.

Antolatutako 6 bidaietan 59 erabiltzailek eta 18 begiralek parte hartu zuten, eta parte-hartzaileen esperientziaren balorazioa positiboa izan zen.



Kirol programa

Astero kirola egitea emaitzak ematen ari da, gizarte errentagarritasun argia. Aurtan, Gasteizko 153 kirolariek 8 kirol modalitatetan parte hartu dute, 17 kirol taldetan banatuta eta 18 entrenatzailek lagunduta. Laudion, berriz, 12 kirolariek hartu dute parte, 2 kirol diziplinatan, 4 entrenatzailek lagunduta. Gainera, igeriketako eta areto futboleko gure kirolariek erkidego eta estatu mailako kirol txapelketetan hartu dute parte.

Gasteizko JUDIZMENDI igeriketa klubaren kolaborazioari esker, APDEMAko 6 kirolari (2 neska eta 4 mutil) Arabako Txapelketetan lehiatu dira, Arabako Igeriketa Federazioko proben egutegian.



Voluntariado

Asteburuetan, boluntario taldeek dinamizatzen dituzte zentroetako eta programetako jarduerak, aisiako espezialisten laguntzarekin. Arretaren kalitatea bermatzeko, prestakuntza etengabearen aldeko apustua egiten dugu, bai jardueretan zehar, bai eta ikastaro bakoitzaren hasieran ere, irailean.

Oporraldiko programak beste intentsitate bat eskatzen du eta, beraz, prestakuntza zehatzagoa.

FEVAS – Plena Inclusión Boluntario Elkarteak martxoaren 24an egin zuen bilera, Bilbon, baterako ekintzak planifikatzeko, eta APDEMAk ere hartu zuen parte.

Autokudeatzaileen programa

Autokudeatzaileen taldeak parte-hartze guneak dira; adimen ezintasuna duten pertsonen euren nahiak eta proiektu pertsonalak adierazten eta azaltzen dituzte talde horietan, eta esperientziak partekatzen.

Autokudeatzaileen taldea 72 pertsonak osatzen dute, eta 12 pertsona itxarote-zerrendan daude. 2017. urtean, 56 talde aritu dira lanean, 4 Gasteizen eta 1 Amurrian, eta batez besteko asistentzia %90tik gorakoa izan da.

Garatutako beste jarduerak batzuk: irakurketa errazerako klubak, Donejakue bideko ostatu emaileak, Boluntarioak, Autokudeatzaileen Euskadiko XIII. Topaketa, irakurketa azkarrerako gidaren testatzea, Osasun + hitzaldi dibulgatiboak.

Irakurketa errazerako klubak

2014-2015 ikasturtean, irakurketa errazerako klubak sortu zituen APDEMAk, “jarduerak asoziatibo jarrai” modura, adimen ezintasuna duten pertsonen irakurketa eskubidea hurbiltzeko.

2017an, adimen ezintasuna duten pertsonentzako irakurketa errazerako 3 klub kudeatu ditugu, Pilarreko Gizarte Etxean, Ignacio Aldekoa Kultur Etxean, eta Amurrioko Kultur Etxean. Baita adimen ezintasuna duten eta ez duten pertsonentzako Klub “Inklusiboa” ere, Gasteizko Udalaren lankidetzarekin.





Aisia zentroak eta programak

Gasteiz

Erabiltzaileak: **201**

Profesionalak: **5**

Boluntarioak: **24**

Amurrio

Erabiltzaileak: **26**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **35**

Laudio

Erabiltzaileak: **27**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **12**

Arabar erroia

Erabiltzaileak: **23**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **6**



Oporrak

Parte-hartzaileak: **193**

Begiraleak: **47**

Txandak edota jarduerak: **18**



Kirola Gasteiz

Kirolariak: **153**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **18**

Jarduera taldeak: **17**

Kirol modalitateak: **8**

Asteko entrenamendu-
orduak: **2/3/5**



Boluntarioak

Zentroak eta programak: **77**

Kirola - laguntza -
txapelketak: **7**



IE klubak

Gasteiz Taldeak: **3**

Amurrio Taldeak: **1**

Oporrak

Inklusio Erabatekoa Imserso

Parte-hartzaileak: **30**

Begiraleak: **7**

Txandak: **3**

Kirola Laudio

Kirolariak: **12**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **4**

Jarduera taldeak: **2**

Kirol modalitateak: **2**

Asteko
entrenamendu-orduak: **2**

Autokudeatzaileak

Gasteiz Taldeak: **4** Parte-hartzaileak: **62** Bilerak: **70**

Amurrio Taldeak: **1** Parte-hartzaileak: **10** Bilerak: **18**

Profesionalak: **1**



Bidaiak

Parte-hartzaileak: **59**

Begiraleak: **18**

Txandak: **6**

Kirola Erkidegoko-Estatuko txapelketak

Txapelketak: **15**

Kirolariak: **196**

Begiraleak-
Entrenatzaileak: **20**

Kirol modalitateak: **2**

Parte-hartzaileak: **78** Dinamizatzaileak: **3**

Parte-hartzaileak: **10** Dinamizatzaileak: **1**

45

Arreta goiztiarreko zerbitzua

Garapen arazoak dituzten edo halakoak edukitzeko arriskua duten 0-6 urteko haurrak artatzen ditu APDEMAren Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak. Baita horien familiak ere. 2017an, 343 neska-mutilek egin dute terapia.

Arreta zuzeneko esku-hartzeek estimulazio (orokorra), fisioterapia eta logopedia zerbitzuak eskaintzen dituzte. Saioak banaka edo taldean izaten dira, ordubetekoak.

Familiei laguntzea ere oso garrantzitsua da. Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak senideak artatzen ditu eta euren haurtxoei nola lagundu erakusten diete. Logopedian, adibidez, aitek eta amek hartzen dute parte saioetan.

Koordinazio, aholkularitza, prestakuntza eta gizarte parte-hartze lanak ere egiten ditu gure zerbitzuak.

Arreta goiztiarreko zerbitzuan garapen arazoak dituzten edo halakoak edukitzeko arriskua duten 0-6 urteko haurrak eta horien familiak artatzen ditugu.

Esku hartzearen oinarritzko helburuak dira euren gaitasunak ahalik eta gehien bultzatzea, haurraren eta horren familiaren gizarte inklusioa sustatzea, haurraren eta horren familiari ingurura egokitzen laguntzea eta modu prebentiboan jokatzea.

Haurren eta horien familien bizi-kalitatea hobetzea da xedea, dituzten beharrei lehenbailehen erantzunda. Horretarako, banakako edo taldekako saioak egiten dira, 60 minutukoak, familiak parte hartuta, eta laguntza eskaintzen zaio behar duen guztietan.

Esku-hartzearen maiztasuna haurraren garapenaren unean uneko beharren arabera da.

Arreta goiztiarreko zerbitzuko profesional taldea koordinatzaile batek, garapena orokorreko estimulazio teknikariek, fisioterapeuta pediatrikoek eta kanpoko logopedia zerbitzu batek osatzen dute.



Arreta zuzena

Arreta zuzeneko zerbitzuak arreta goiztiarreko zerbitzuak eskaintzen ditu: estimulazio orokorra, fisioterapia eta logopedia.

Estimulazio orokorra

2017. urtean, 193 haurrek egin dute estimulazioa, honela banatuta:

- 104 haurrek estimulazioa bakarrik egin dute
- 43 haurrek fisioterapia/estimulazioa egin dute
- 32 haurrek logopedia/estimulazioa egin dute
- 14 haurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia egin dute

Fisioterapia

2017. urtean, 120 haurrek egin dute fisioterapia, honela banatuta:

- 60 haurrek fisioterapia egin dute
- 43 haurrek fisioterapia/estimulazioa egin dute
- 3 haurrek fisioterapia/logopedia
- 14 haurrek fisioterapia/logopedia/estimulazioa

Haurrarekin eta horren familiarekin egindako banakako saioak ez ezik, eguneroko bizitzan postura onak edukitzeko eta ikastetxean zein etxean erabiltzeko haurrarentzat ezinbestekoak diren esku-hartzeak ere hartzen ditu fisioterapiak, arnasbideen fisioterapia, postura egokitzeak, altzarien egokitzea, ferulak, kinesiotaping bendak, eta abar.

Logopedia

Arreta goiztiarrera joaten diren haurren beharrak askotarikoak direnez, ARGIA logopedia kabinetearekin sinatutako lankidetzat hitzarmena mantendu da, hizkuntzaren errehabilitazio zehatzagoa behar duten kasuak artatzeko. Euren ezaugarriak direla-eta, logopedia saioetara bakarrik joaten dira haur batzuk (88



haur); beste batzuek logopedia saioak eta arreta goiztiarrekoak txandakatzen dituzte zentroan (32k estimulazioa eta logopedia; 3k fisioterapia eta logopedia; 14k estimulazioa, logopedia eta fisioterapia); eta kasu batzuetan, zentrorra joaten da logopeda, balorazioak edo jarraipenak egiteko eta familiei pautak emateko. 2017an, 137 haur artatu ditu logopedia zerbitzuak.

Tratamendua malgua da, haurraren ezaugarrien arabera. Prozesu osoan zehar, familiek harreman zuzena dute euren seme-alabei kasu egiten dieten profesionalekin. Horrela, euren inplikazioa lortzen da prozesu osoan, gurasoen kooperazioa sustatzen da, horien parte-hartze aktiboa bultzatuta eta horien ongizatearen alde eginda, eta integrazio positiboa zein haurra bere gizarte inguruetan sartzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren estrategiak eta baliabideak eskaintzen dira. Izan ere, zentroan eguneroko bizitzan egiten den lana sendotzeko eta integratzeko sartzen dira guraso asko saioetan. Posible bada, bilerak egiten dira aldi behin familiek, eta etengabeko itzulketak; euren seme-alabaren eboluzioaren inguruko informazioa ematen zaie, eta haurrarekin lantzeko pautak ematen zaizkie, eguneroko bizimoduan txertatu ahal izateko. Familientzako erlaxazio tailer bat eta masaje tailer bat ere egin dira 2017an.

Familiantzako laguntza

Aurten, bakarka eman zaie laguntza gurasoei. Artatu eta euren sentimenduak adierazteko, ezagutzak jasotzeko eta familiaren orekari lagunduko dioten pautak ikasteko esparru bat eskaintzea da helburua. Horretarako, elkarrizketak egin dira aldiaren behin gurasoekin, balizko laguntza eta esku-hartze beharrak antzemateko.

Batzuetan, puntuala izaten da esku-hartzea, beharrezkoa izan daitekeen une zehatzetan, eta beste batzuetan, jarraia (astean edo hamabost egunean behin), baina beharrezko laguntza eskaintzeko eta euren seme-alabaren heziketan eta estimulazioan orientatzeko, betiere, eguneroko bizitzarako pautak zehatzak emateko.



Koordinazioa, aholkularitza eta prestakuntza

Arreta goiztiarreko zerbitzuak bertara joaten diren haurren prestakuntzan esku hartzen duten zerbitzu guztiak koordinatzen ditu, zuzeneko esku-hartzearekin batera, hazkunde-aukerak ahalik eta onenak izan daitezzen. Astearen behin, barne koordinazio bilerak egiten dira kasu bakoitza aztertzeko, zerbitzua antolatzeko, esku-hartzean partekatutako haurrak koordinatzeko, profesionalen arteko barne prestakuntzarako, kasu klinikoak aurkezteko eta logopedarekin koordinatzeko.

Gainera, aldiaren behin, haurrak artatzen dituzten zerbitzu guztiak koordinatzen dira, Udaleko Hezkuntza Zerbitzua, gizarte zerbitzuak, Berritzegunea, CRI, kabinete pribatuak, osasun kontsultak eta osteopata. Haurren ikastetxeen kasuan, jardueraren pautak zehatzak eman zaizkie hezitzaileei, altzariak egokitu dira beharrezkoa izan den kasuetan, eta haur bakoitzaren ezaugarri zehatzei eta horiekin egiten den lanari buruzko informazioa trukatu da.

Prestakuntza eta gizarte parte-hartze arloan, hitzaldi bat eman zaie Presentacion de Maria, Francisco de Vitoria eta Sagrado Corazon ikastetxeetako haur hezkuntzako modulu-tako ikasleei.

Praktiketako ikasleen prestakuntzarekin jarraitu da. Zehazki, fisioterapiako ikasle batekin, eta hezkuntza bereziko masterreko batekin. Gainera, koordinatzaileak eta zerbitzuko ama batek Onda Vasca irratiko 'Nunca serás tan joven' saioan parte hartu zuten.

Arreta goiztiarra

Haurrak: **343**

Profesionalak: **15**

Familiak: **185**

Esku-hartzeak

Estimulazio orokorra: **193 haurrak**

Fisioterapia: **120 haurrak**

Logopedia: **137 haurrak**



Laguntzaileak:

Erakundeak:



Entitateak:



Enpresak:

